

## **9.KOSTUEN EGITURA MOTAK**

**Kostu finkoak:** Boligrafoa egiteko behar ditugun materialak eta material hori sortzen duten bai makina eta pertsonak izango dira gure enpresaren kostu finkoak. Argindarra ere hilabetero ordaindu beharko dugun gastu bat izan beharko da.

Hasiera batean, inbertsio bat egin beharko dugu, lokal eta makinekin gure enpresarako beharrekoak batdira gure boligrafoa sotzeko.

Langileen kasuan, langile mota ezberdinak edukiko ditugu: Alde batetik, lokalean lan egin beharko dutenak eta beste aldetik, lokaletik dendetara kamioarekin gure produktuak sakabanatuko dituztenak eta gure produktuaz propaganda egingo dutenak, interneten eta dendaz denda.

**Kostu aldagarriak:** Langileek boligrafoa egiteko erabiltzen dituzten materialak eta espezie ezberdinak erosi behar dituzte, eta horiek duten salmenta-bolumenaren arabera izango dira. Gure enpresa handitzeko eta diru gehiago irabazteko nahiarekin, gure boligrafoa dekoratzeko bai pegatina eta funda ezberdinak sortuko ditugu baina hori guztia bigarren maila batean utziaz.

**Eskala-ekonomikoak:** Enpresekin hitz egin eta gero bezero finko bezala hartuko gaituzte, hilabete hasieran beti hartuko baitditugu osagai berdina eta kantitate antzekoetan, nahiz eta, denbora pasa ahala, gure bezeroen nahia ezagutu eta gero enpresekin eskaera ezberdinak egingo ditugu bere nahia eta beharra ezagutu ondoren.

Gure boligrafoa, ez da kostu bajuko tresna bat izango; gure kalitateaz izango garelako ezagun. Guk ez dugulako nahi, 10 aldiz erabili eta gero apurtzea eta beste baten bila etortzea. Gure langileei ere soldata duin bat eman nahi diogunez, prezio bajuko produktua ez izatea erabaki dugu. Gure langileak gure enpresan gustora lan egingo dutenez (soldata duin eta ordu kantitate justuan lan...), jendea erakarriko dugu gure merkatura, langileek ondo hitz egingo baitdute gure enpresataz eta nahigabe beraiek ere bere lan orduz kanpo gure enpresari propaganda egingo baitdiete.

